

EKITEN 2018

Landa Ingurunearen Garapenari buruzko Ideia eta Proiektuen X. Lehiaketa.

Ekintzailtzako EKITEN programan parte hartu duten enpresa-proiekturik onenei sariak banatu zaizkie. Sari banaketa Arrasaten izan zen, 2018ko ekainak 22an, goizeko 11:00etan. Ekitaldia Goi Eskola Politeknikoan izan zen eta bertan MUko ordezkariak, Gazte Enpresa eta Kimu Berriko ordezkariak eta LANDAOLA (Gipuzkoako Landa Garapenerako Elkartearen Federazioa) ordezkatzan Debemen eta Deba Garaia Landa Garapenerako ordezkariak izan ziren.

Aurtengo edizioan 34 proiektu aurkeztu dira Mondragon Unibertsitateko EKITEN lehiaketara, 5 Latinoamerikako Unibertsitateak (Kolonbiako Unipanamericana Unibertsitatea eta Querétaroko Mondragon México Unibertsitatea). 115 ikaslek hartu dute parte. Lehiaketa Mondragon Unibertsitatearen Ekiten sustapenerako eta ekintzailtzarako programaren barruan kokatzen da, eta babesleak artean Landaola Federazioa aurkitzen da. Lehiaketak ikasleengan ekintzailtzaren kultura txertatzea du helburu.

Landa-Ingurunearen Garapenari buruzko kategorian **“Gazta-sektoreko azpiproduktuekin egindako garagardoa”** ekimena lehenengo saria eskuratu du. Esne-gazura oinarri hartuta artisauek erako edariak egiten dituen garagardotegia da. Gazura gaztandegietan sortzen duten azpiproduktua da. Bigarren saria **BerrizEcotourism** egitasmoarentzat izan da. Bizitzeko eta turismoa egiteko modu berria, zirkularra. Birziklatutako materialekin egindako aire libreko kanpina da, ahalik eta hondakin gutxien sortu eta daudenak berrerabiltzeko diseinatua. Ez zen banatu hirugarren saririk.

Proiekturik bideragarrienak eta enplegua eta aberastasuna sortzeko gaitasun handiagoa duten proiektuak saritzen dira. Horiek dira “Ekiten” programaren epaimahaiak kontuan hartu dituen premisak 2017-2018 edizioako irabazleak aukeratzeko. Aurkeztutako proiektuak ebaluatzeko kontuan hartu diren irizpideak hauek izan dira:

- ideiak aberastasuna eta enplegua sortzeko duen gaitasuna,
- proposamenaren bideragarritasuna eta ideia orijinaltasuna eta
- izaera berritzailea.

Kategoria bakoitzeko talde irabazleak 1.000 euro eskuratu ditu, eta bigarren sailkatuek 500 euro.

EKITEN lehiaketak proiektuen ebaluazio prozesuan, aurtengo edizioan ere proiektuak aukeratzeko, publikoak bozka egiteko aukera izan du. Lehenengo fasea gaitu ondoren, bideo bat grabatu dute proiektuak ezagutzera emateko. Bideo hauek, MUko YouTubeko kanalean, EKITEN 2018 zerrendan kargatu dira eta facebooken ere bai. Bideo hauek jaso dituzten "atsegin dut" guztiak izan dira kontutan publikoaren balorazioa egiteko.

Landa Ingurunearen Garapenerako Ideien eta Proiektuen X. Lehiaketa.

1.- Saria: . **“Gazta-sektoreko azpiproduktuekin egindako garagardoa”**

Taldea: Paula Toran, Ignacio de Tomas, Fatima Goiri eta Devin Uya. Gastronomía Zientzietako Masterreko ikasleak.

2.-Saria: BerrizEcotourism

Taldea:Uxue Del Rio Laboa, Maite Irulegi Palacios eta Aritz Gartzia Segurola. LEINNeKo ikasleak.

